

BERTSOZ: BERTSOLARI KLASIKOAK

Bertsolari klasikoetan oinarrituz, ainbat lan proposatzen zaizkigu lan koadernoan, 12.-15. orrialdeetan.

Bertsolari bakoitzaren inguruan sortu beharreko bertsoak ardatz gisa hartuz, gelako blogean, "Betsoz" atalean, publikatzeko lan bat egitea proposatzen dizuegu:

Bertsolari klasikoak izenburupean, Txirrita, Xenpelar, Bilintx, Xalbador eta Otañori buruzko fitxa labur bat eta bertso eskainia (grabatua) egitea proposatzen dizuegu.

Bertsolariaren fitxa honen antzekoa izan daiteke:

- Argazkia
- Izen-abizenak – Goitizena
- Jaiolekua – Jaiotza eta heriotza datak
- Bere izaera adierazten duen esaldi laburra.
- Berari buruz ezaguna den istorio edo gertakizun baten azalpen laburra.
- Berari eskainitako bertsoa: 12.-15. orrialdeetako ariketak egitean sortutako hoberenak graba ditzakezue, sari moduan.

Grabazioa ordenagailuan egingo duzue, audio ediziorako software bat erabiliz ("Audacity" edo beste edozein). Bertso bakoitza "mp3" formatuan gordetako soinu-artxibo bat izango da.

Lana bukatzeko, gelako blogean, *Bertsoz* atala sortu, eta "Bertsolari klasikoak" izenburupean, bertsolari bakoitzaren fitxa editatu, eta soinu-artxiboa gehitu, "Halakoari (Bertsolariaren izena) eskainitako bertsoa" izenburua jarri eta gero.